

«Kuwait hartu Irakek»

JOSERRA GARZIA



HORRAKO titular ezinezko hori agertzen zen Eusko Jaurritzairen egunkari ofiziala izango omen denak Durangorako prestatu omen zuen ale berezian.

Omenka ari naiz, telebistaz baizik ez baitu ikusi ale berezi hori. Geroztik zer gertatu den, dakienari galdetu beharko zaio. Nik behintzat ez dut eskuratu izan.

Harri eta zer geratu nintzen titular hori irakurrita. Kazetaritza ordu erdiko nekea eskeini dion edonork daki titular batek zehatza behar duela. EGUNKARIA honek badu, bere arlotean, estilo liburu txiki bat, mila hizkuntz arazo airean uzten dituen aren hori behintzat argi eta garbi finkatzen duena. «Hartu du», edo «hartu zuen» behar du derrigorrez, «hartu» hitza onartuz gero behintzat. Ahal dela elipsiak eliditu, eta non, noiz eta nola aditzera eman.

Ez da anekdota hutsa. Titular horrek hizkuntz filosofia jakin bat isladatzen du, Igeldoko ihardundietan ere agertu zena: ahoko euskara eredutuz duen hizkuntz filosofia.

Eta ondo dago ahoko euskara hori. Behar-beharrezkoa zaigu. Baina alorrean alorrek hizkera lantzen ikasi beharko dugu noizpait, halere. Ahoko-tasunaren sua berpizteko balio du hauspoak. Baita paperean idatzitakoak txukatze ere. Ez, ordea, paperean idazteko.

Eslobakiarrak ere bai

TXILLARDEGI



ESLOBENIARRREN ondokit opoz orpo, Eslobakiarren txanda orain.

Hiru krisialdi ezagutu ditu iaz guk oraindik «Txekoslovakia» deitzen dugun Errepublikak Federatuak.

Lehenegoa Apirilaren 20an amaitu zen: eslobakiarren presioaz, izena bi partetan idatziko zen aurreantzean, zubitoo eta guzti: «Txeko-Slobakia»; Estatu bikuna, eta federala. Belgikarrek ez dagoen bezalatsu, «txekoslovakiarri» ere ez dago. Hizkuntzaren aldetik, hirutitik biga, txekiarrak dira. Mendebaldean; eta hirutitik bat, Ekialdean, eslobakiarrak. Gehiengo, hitz batez, ekonomiaz ere aurreratuena, eta erlijioz nahasieta, Praha ingurukoa da. Gutxiengo, berriz, atzeratuena, katolikoena, joan den gerratean Hitler-en zerbitzuko «gobernu mourointxo» jasan zuena, Bratislava eta Kosice ingurukoa.

Joan den Abenduaren 12an mamitu egin da urrats hori. Orain dela hiru aste, hiru gobernu daude Txeko-Slobakiako Federazioan: federala, txekiarra eta eslobakiarra. Bakoitak bere aginte puska du; gobernu federalari hiru alor nagusi utzi dizkiotelariki: Armada, Atzerriarekiko harremanak, eta Sosa Gainerako guztia «deszentralizaturik» geratu da.

Eslobakiak gehiago nahi omen du; eta Eslobenia omen dauka eredu. Meciar «federalistak» hau esan du garbiki: «Estatu txekoslovakiar batura oro daude gaiturik».

Vaclav Havel-ek orduan («nihil novum sub sole» badakizue, «café para todos» delakoa proposatu du: bi errepublikak federatu beharrean, «bost eskualde autonomo» na-hiago omen litzuke...

Eslobakiarrak eta txekiarrak lehengusu propioak dira: 1846ra arte «Batu» bakarra ere bazuten. Ba ahal zenekiten honen berririk?

SUD OUEST

Bake lojika

Frantziak, Estatu Batuekiko benetazko elkartzasunari ihes egin gabe, Nazio Batuen atzerpe diplomatikoan, definitzen ari den iniziatiba europarra kudeatuz lagundu nahiko luke. Roland Dumasek aurkeztutako plan frantsesa fidela da Ziurtasun Kontseiluaren azken erabakiekiko, baina malgutasun apur bat dakar, elkartu egiten bait ditu Irakek Kuwaitetik aldegitako iragarpena eta bere kontra inolako erasorik izango ez den konpromezua.

JOEL AUBERT / 91-1-5

EL MUNDO

ETArekin negoziazioa?: 91ko zalantza

Aljerren itxaropena egon bazen, nazioko Gobernu eta ETArekin artean kontaktua daudelako ziurtasuna badago, zergatik errefusatu negoziazio posibilitatea istiluari irtenbidea emateko? ETak negoziazioa

HEMEROTEKA



PERIDIS / EL PAIS / 91-1-5

nahi duelako bakarrik? Argi dago negoziatu nahi duenarekin bakarrik negoziatu daitekeela. Negoziazio hitzak ez zukeen hiztegiaren lekuri izango lagunarekin konpontzea bakarrik esan nahi balu. Gaiztoarekin ez negoziatzeko oinarrian tinko irauteak gaiztakeriaren azkenetik urruntzen gaitu.

EDITORIALA / 91-1-5

EL DIARIO VASCO

Oposizioa eta konpromezua

Hitzarmenaren mezagile nagusiak —mezagilea dagoen tokian mezalaguna dago— sozialistak Gabinetearen hirugarren hanka izatea nahi du. Negozio borobila litzateke. Bere programa derrigorrean ezartzen du.

ABC

ETak ez du atzera egiten

Orain ulertzen da zenbait poz-adierazpen ofizialen funtsik eza. Bandaren bame zatiketarik, Herri Batasunan gertatuta-

JOSE LUIS LOPEZ DE LA CALLE / 91-1-5

koetatik erdi deduzituak, egietakoak baldin baziren, indarkaria gogortzeko bakarrik balio izan zuten. Bere garaian azken suntsiketaren aurregela bezala agurtutako 'Waldoren' atxilotaketak, ETAk duen barne promoziorako gaitasuna bakarrik erakutsi du. Ajuria Eneako Itunak eta gero Euskal gizartearen indarkeriaren aurka argi agertzen den gehiengo bat sortzeko, ez dio ekarri bandari lehen zuen zama sozialaren murrizketa nabarmenik.

Hauk dira espainiar demokraziak bere denboraren kontrako gerran aurre egin behar dien errealitateetariko batzu. Isiltasunaren politikak ez du arazoa txikiago egiten, ez eta gutxiago ere.

LORENZO CONTRERAS

91-1-5

ZUZENDARIARI

181 urte Ataungo osaba-ilobek

Urtearen azken egunean Ataungo On Joxemielek 101 urte egiten zituela ia egunkari guztiek jasotzen zuten berria izan zen.

Goimaiako ordezkari politikoa hasi eta azken katurainokoan ahotik jaso zituen Zorionak! gure «apaiza zaharrak» (gure etxean goxoki esaten zaion bezala. Guk ere gutxiago izan nahi ezearn, jaso bitza baita ere gureak).

Duela urtebete Egin egunkaria bidalitako artikulu batean nion bezala (zein hango lankide batek fusilatu eta lapurtu bait zuen argazki eta guzti), ez dago ulertzerik On Joxemielen lan Pilar ilobarenarekin lotzen ez bada. Munduaren aurrean osaba agertzen bada ere, meritu osoz, noski, ilobak ez du meritu gutxiago. Sarritan gertatzen den kontua da hau eta gizarte elitista honetan abaz- tuzten dira buruzagiaren inguruko laguntzaile guztiak. Lerro hauek bidez, bada, haientzat ere gure aipamena eta esker ona bidali nahi diegu bereziki Pilar Barandiarani.

Azken urteotan On Joxemielek jaso du han-hemenka hainbat omenaldi eta txalo, batzuetan herri mailakoak eta bestec-

tan erakunde aldekoak; bere bizitzan zehar omenaldi gehiago jaso dituela esan daiteke laguntza baino. Berak, eta bere jarraitzaileek laguntza-falta sarritan jasan dute beren ikerketak aurrera eramateko orduan. Orain ere txaloen atzetik ez dakit bote dagoen On Joxemielek bultzatutako ikerketei serioski bultzatzeko asmorik eta borondatek. Maiz iruditzen zaigu politikariak gizon ospetsuarengana hurbiltzen direla haren merituak batzuk bereganatu nahian eta ez haren lanari harri berri bat gehitzeko.

Pertsonalki dagokidanez, On Joxemielekin lanean ibiltako urteotan jaso dudun zerbaiteren aitortza egin nahi dut. Gure bizitzan erreferentzia bat izan da On Joxemiel, herririk bizi izan duen atxekimenduaengatik. Gure nortasun kolektiborengatik borokatzea merezi zuela ulertu genion.

Beti harritu nau On Joxemielek Ataunen lanean ikusitakoa. Ez diot sumatu kargu honorifikoetan gora eskalatzeko irrikarik, Ataungo Sara etxetxoan bere jaiotzetik gertu ezagutu dut beti eta horrek nire baitan baretu izan du maiz hainbat kezka.

Euskararenaganako maitasuna ere ikusi ahal izan dugu berarengan. Bere garaikoa izan da On Joxemiel euskararen erabilpenari dagokionez. Euskaraz gehiago argitaratu izan balu

hobe zatekeen, erdaraz argitaratu duenarekin oreka hobea izateko. Barkatu izan diogu hori, ordea, bere bizitzaren bidez eta bere presentziak euskararen indartzea bultzatu duela no-nahi eta beti. Hala ulertu du jendeak, ikusi besterik ez dago zenbat ikastola dedikatu zaizkion. Euskarak guretzat duen garrantzia On Joxemiel onahitrik dation ezaugarria da.

On Joxemiel eta bere jarraitzaileek lehenaren eta orainaren lotura egin dute eta inguruko kulturen eraso (ez eragin naturala) izan dugunean bertoktasunari custeko armak eman dizkigute. Bere kasu pertsonalean, berriz, dirua nagusi bihurtu dugun mundu honetan bizitzaren aurrean beste jarrera erakusten jakin du. Milesker ikasgai horienatik!

Ikasgai guztiotan zu ere ez zaude aparte Pilar. Osabaren bizibidearekin bat egon zarela jarraitu diozu eta lagundu. Liburuetan osabaren izena bakarrik ikusiko bada ere, jakizu nire baitan zure esku fina ere ikusiko dudala haietan. Zaindu ezazu orain arte bezala osaba, mundu honetan igo daitekeen adin-gai-lur handiena igotzen ari den une honetan. Nire eskerrona, merke bada ere, jaso ezazula eskatzen dizut, benetakoak bait da oso-osorik.

MARTXEL AIZPURUA (ZARAUTZ)

PERTSONAIA



Ramon Jauregi

Nork esan zuen sozialistak gelditu zirela ilun? Dirua alde duena ez da atzean gelditzen inun. Eskua luze jarriker eta Xabiurtxori eman mun, etorkizuna zuena da ta portatu hadi Erramun!

AITOR SARASUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Publizitateak:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Leger Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1/20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22
Erredakzio eta Tailerra: ANTTA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Publizitatea: Loloia, 14-1/3/20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11